

MUSIKA • **Charley Pattonen lanen bilduma**

Blues oihuak

Charley Pattonen kantuez eta informazioaz osatutako disko bilduma berria kaleratu dute

Oihu eta orro artean irteten zen agertokietara Charley Patton. Bere doinuek bluesaren munduan hainbat zutabe eraiki zituzten. Orain, zazpi CDz osatutako disko liburua kaleratu du Revenant disketxeak.

Añe Sarasketa

Oihu batean irteten zen agertokira. Gitarra hartu eta jende artean murgiltzen zen. Bere kantuek beti zuten zer adierazi. Charley Pattonentzat musika adierazteko oinarritzko bi-dea zen, eta hala erakutsi zien bere entzuleei. Bluesaren aitetako bat izan zen Charley Patton. Hala irizten dio musika kritikari talde zabal batek. Hala ere, Robert Johnson blues egile famatuaren itzala beti izan du ondoan. Baina, jaioturteak kontuan izanez gero, Charley Patton dugu antzindaria. Izan ere, XIX. mendeko musikaria da Patton. 1891. urtean jaio zen Mississipin (AEB). Nerabea zela, bere gurasoe-kin batera etxalde batera joan behar izan zuen lan egitera. Bertan hartu zuen lehenengoz gitarra, 12 urte zituen. Handik gutxira, Pattonek bluesa jotzen zuen; XX. mendea jaio berria zen.

Bizi osoa

Kaleratu berri duten bilduma horretako bost CDtan Charley Pattonen kantuek bildu dituzte. Baita berarekin batera agertokietan kantatu zuten hainbat musikariren ahotsak ere: Son House, Willie Brown (bere ohiko bikotea), Louise Johnson, Henry Son Sims, Bertha Lee, Delta Big Four, Buddy Boy Hawkins edo Edith North Johnson, besteak beste. Bestalde, seigarren lanean, agertokietan Pattonen jarraitzaile izan ziren hainbat musikariren lanak entzun daitezke: Ma Rainey, Howlin Wolf, Poor Boy Lofton, Kid Bailey, Walter Rhodes, Rube Lacy, Blind Joe Reynolds, Tommy Johnson

Basatia

Oso tonu altuan kantatzen zuen Charley Pattonek. Hain zen altua tonua, non sarritan, bere hitzak ulertezinak bilakatzen ziren. Izan ere, blues gizona izateaz gain lehen rock & roll egilea izan zela dioenik ere bada. Ez zen geldirik egoten agertokira igotzen zenean; jende artera salto egiten zuen; kantatu egiten zuen; gitarrari buelta eman eta danbor moduan erabiltzen zuen; edo bizkarrean zuela gitarra jotzen zuen; sarritan, bat-bateko kantuek asmatzen zituen, edo doinuek. Ikuskizun izugarriak bilakatzen ziren bere kontzertuak.

Bere bizimodua ere halakoa izan zen. Izaera gogorreko eta zaileko gizona zela diote adituek. Alkoholarekin arazoak izan zituen. Bidaiaztea maite zuen, gutxitan gelditzen zen luze leku batean. Jenio biziko gizona zen, eta liskarretan erraz sartzen zen horietakoa. Zortzi bider ezkondu zen hogeita hamalau urtetan. Sinismen bitxiak zituen, baina hala ere, kristau elizatik hurbil egon zen. Blues gizonen bizimodu ohikoaren ereduak bizi zituen Pattonek. Bizitza laburra baina betea izan zuen. 1934. urtean hil zen, bihotzekoak jota. 

edo Pops Staples. Azkeneko CDk, berriz, egilearen inguruko informazioa jasotzen du (elkarrizketak, aipamenak ...). Liburua ere badu lan berriak; abestien hitzak batzen ditu; bere ikasle izandakoen aipamenak; egilearen zenbait datu; Fahreyri idatzitako liburu baten pasarteak



eta abar. Charley Pattonen bizitzaren eta lanaren laburpen modukoa da disko bilduma berria.

Historia kantatua

Gaske hil zen Charley Patton, 1934. urtean, 43 urte zituela. Hala ere, utzitako ondarea zabala izan da. Izan ere, blues kantaria izateaz gain, historia kontalaria ere bazen. XX. mende hasierako Ameriketako Estatu Batuetako gizartea zer nolakoa zen kontatu zuen bere abestietan; nahiz eta askotan, bere kantuek ulertezinak izan, kantatzen zuen moduagatik. Esaterako, sasoi haie-tan AEBetako hegoaldean zegoen arrazakeriak sutan jartzen zuen Patton. Hegoaldeko arrazakeriaz nazkatuta, eta etsita, bere lurraldea utzi zuen eta bidaiatzeari ekin zion, blues musikako ereduak askotan egin duten modura. Bere hainbat kantutan agertzen da arrazakeria-ren gaia, eta arraza beltzeko andragizonek jasaten zituzten basakeriak kontatzen zituen sarritan.

Blusean aurkitu zuela askatasuna zioen egileak, eta horregatik, barnean gorde nahi ez zituen gaiak erabili zituen kanturako. Laster bilakatu zen blues gizon ezaguna AEBetan. 1929. urtean argitaratu zuen bere lehen lana Paramount disketxearekin. *Pony Blue* kantu famatua kaleratu zuen, eta arrakasta hain handia izan zuen, non hurrengo urtean bere hamahiru disko kaleratu zituen Paramountek. Ordu arte ezaguna zen Charley Patton, baina ordutik aurrera, haren arrakastak ez zuen mugarik izan. Lau urte geroago hil zen, ordea, bihotzekoak jota.

• BEGI ERTZETIK

3

Little Baionako karrikak huts zeuden. Haize basak lurrean barreiatu paperak hegaldarazten zituen eta antsia neukan bihotzean, edanez mozkortzeko eta zigarretaz barnea erretzeko gutizia. Bakardade erraldoia. Johane Barkosen ahotsa belarrian, doloreetan doloreena, eta Ori maldako maiatzeko behelainoak begien bazka. Koka-kola botila bat ostikatu nuen, norbaitek etsai madarikatuaren pentsamendua gizartearen presioak baldintzatzen zuela erran zidala oroitu nuelarik. Determinismo inkulto horren arabera, ez zuen etsaiak bere etsai ikusmoldearen

emateko eskubiderik. Behar zuen hark, trauka ala trebes

ITXARO BORDA

IDAZLEA

euskal populu suharraren

begirunea merezitzeko,

gure hogeita hamar

urteotako iritzia

plegatu. Alabaina hemen,

kritika eta pentsamendua

bera, antieuskaldun izatearen

seinale likitsa bilakatua da.

Ene mintzakidearen solasen harian, borroka armatuaren zamapean uztartu euskararekiko mesfidantza gogorra erakusten zuen behialako etsaiak. Irudiz bortizki aurka zen. Amalgama erraz eta gogo txarrekoaren argumentuak entzutean haserretu omen zen neure kide sutua. Kontestu horretan, triste paketa hark, ihardukitzeko eskubidea zeukala ihardetsi nion kideari, ez genuelako guhaur nehoiz amalgama horren argitzeko indar mikorik egiten. Zer ez nuen ahoskatu bada? Etsaiak ez zuen eskubiderik. Alde hitz egitekoa baizik. Edo alde egitekoa. Arazo diplomatikorik ez sortzeko, fama aski txarra neukala jadanik kontuan harturik, abertzale sutsu eta euskara batu hanpuros baten ahozkatzailea zen (bat behingoz!) abertzale kideari arrazoia utzi nion, gehienbat bakeagatik.

Hargatik uste dut etsaiak eskubide osoa duela bere ikusmoldearen deblauki plazaratzeko eta plazaratzen duenean, ene gizartearekiko iritzi kritikoaren moldatzen laguntzen nauela. Arrotz gauzekiko mesfidantza herratsua ongi da, are baliagarriago naski geure hiru lema fermuko ideologia mehar euskaldunaren lotura zehazteko. Eskubidea zuen etsaiak, guk bezala, borroka armatuaren, euskararen eta abertzaletasun trinkoaren gaineko anbiguitearen ezabatzea eskatzeko. Burua altxatu nuen eta Niko Etxarten blues mardul eta sakon baten hitzak errepikatu otoi otoi otoi jainko huna... Ene fede bultak harritu ninduen.

Little Baionako karrika hertsietarik ez zen argirik iraitzen. Pixa urrina. Zakur kakak. Mukuru bete zikin ontziak. Abertzaleen Batasunaren legebiltzarrerako kanpainako afitxak. Eskubide bakarra gure nazio eraikuntzaren aitorpena zena?

Galderarik gabeko beste hauteskunde kanpaina politiko bat jasaiten dugu eta amalgama ez da den mendreenik argitzen. Bego beraz Raffarin xanfarin buru arin hura lanean...

Aitzina beraz, itsu eta mutu.

Agertokira irteten zen bakoitzean bere kontzertua ikuskizun bilakatzen zen